



GAINTZA



**HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN
OROKORRA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA**

**AURRERAPENA JENDAURREAN JARTZEAREN ONDORIOZKO TXOSTENA/
INFORME RESULTANTE DE LA EXPOSICIÓN PÚBLICA DEL DOCUMENTO
AVANCE**



AURRERAPENA JENDAURREAN JARTZEAREN ONDORIOZKO TXOSTENA



AURKIBIDEA – “ONDORIOZKO TXOSTENA AURRERAPENA

1	SARRERA	3
1.1	AURREKARIAK.....	3
1.2	TALDE IDAZLEA.....	4
1.3	LEGE ESPARRUA.....	4
1.3.1	LURRALDE ETA HIRIGINTZA LEGEDIA	5
1.3.2	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATU ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE ETA HIRIGINTZA XEDAPENAK.....	5
1.3.3	INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK.....	5
1.3.4	KULTUR ONDAREA	6
1.3.5	URA	7
1.3.6	LURZORUEN POLUZIOA.....	7
1.3.7	ERREHABILITAZIOA	7
1.3.8	IRISGARRITASUNA	7
1.3.9	ZARATA	7
1.3.10	BERDINTASUNA	8
1.3.11	AERONAUTIKA	8
1.3.12	TELEKOMUNIKAZIOAK	8
1.3.13	ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOA	8
1.3.14	LANDA INGURUNEA	9
1.3.15	ERREPIDEAK.....	9
1.3.16	SALTOKIAK.....	9
1.3.17	BESTE BATZUK	9
1.3.18	LURRALDEA ANTOLATZEKO INDARREAN DAUDEN TRESNAK	9
1.3.19	BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK.....	10
1.3.20	NAZIOARTEKO BESTE ZUZENTARAU BATZUK	11
1.4	DOKUMENTUAREN EDUKIA	11
2	IRADOKIZUNEN EDUKI, BALORAZIO ETA ONDORIOAK.....	12
2.1	EDUKIA	12
2.2	BALORAZIOA.....	12
2.3	ONDORIOAK.....	13
3	HELBURU OROKORREN BERRIKUSTEA	14
3.1	SARRERA	14
3.2	HELBURU OROKORRAK.....	14
3.3	INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK	14
3.4	HERRITARREN PARTAIDETZAREN HELBURUAK	15



1 SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina Diputatuen Kontseiluak 1999ko azaroaren 30eko batzaraldian onetsi zuen behin betiko, eta 1999ko abenduaren 22ko GAOn argitaratu zen.

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauen onespina eman ondoren, proposatzen ziren 14 etxebizitza berriak (3 jarduera unitate desberdinetan banatuak) gauzatuak daude jadanik.

2021 urteko urtarrila eta martxo bitartean, Udalak herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko hirigintza bultzatuko zuen markoa eta lan ildoak identifikatzeko helburuarekin, parte hartze prozesu bat eraman zuen aurrera.

Egoera honetan, Gaintzako Udalak, 2022ko ekainaren 27an erabaki zuen dokumentu hau sinatzen duen taldeari Hiri Antolaketako Arauen berrikuspina idazteko lanak eskatzea, aplikatu beharreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko legedi berriari egokituta,

2022ko azaroa eta 2023ko urtarrila bitartean, aurrez burututako parte hartze prozesua (2021 urtea) osatzeko helburuarekin beste zenbait parte hartze ekintza burutu ziren.

Guzti honen ondorioz 2023ko abenduaren 1ean Diagnostiko Partekatua eta Aurrerapen Dokumentuaren behin behineko izaera zuten agiriak aurkeztu ziren Gaintzako Udalean.

Gaintzako Udalak 2024ko maiatzaren 22an Gaintzako Udalaren Osoko Bilkuraren Batzarrak, 2024ko maiatzaren 22an egindako ezohiko bileran onespina eman zien, bai Diagnostiko Partekatuari, baita Hiri Ordenamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenari, eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoari ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko maiatzaren 31n eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabetez Hiri Ordenamenduko Plan Orokorraren Aurrerapena eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa jendaurrean jarri ziren, interesdunek egoki iritzitako iradokizunak eta alternatibak aurkez zituzten.



1.2 TALDE IDAZLEA

Dokumentu hau idazten parte hartu duen lantalde teknikoak honako hauek osatzen dute:

TALDEKO ZUZENDARIA

Maidor Romo Arizmendi, arkitektoa.

Bere lan taldea:

Josu Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Katia Angoitia Romarate, arkitektoa (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Itsaso Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Jon Orue-Etxebarria Iturri, abokatua.

INGURUMEN ARLOKO TEKNIKARIA

Alexandra Egunez Zalakain, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Bere lan taldea:

Leire Paz Leiza, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Tomas Aranburu Calafel, nekazaritzako ingeniari teknikoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

GIZA ZIENTZIEN ARLOKO ESPEZIALISTA

Mikeldi Zeberio Loinaz, soziologoa (EMUN KOOPE)

1.3 LEGE ESPARRUA

Udal plangintza orokorraren berrikuspena kokatzen duen lege esparrua, oinarritzko izaeraz eta autonomiaz Estatutik eratorritako hirigintza legeria orokorrak eta bereziak osatzen dute, beren hirigintza eskumenak gauzatzean, espazioari eta lurzoruari eragiten dieten alderdi guztiei buruzko legeria sektorialak eta lurralde antolamenduko dokumentuek, berriki onartu diren LAG-etatik hasita, eta eskualdeko LPP-tara.



1.3.1 LURRALDE ETA HIRIGINTZA LEGEDIA

- Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan komunitatearen parte hartzea aldatzen duena.
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.
- 7/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Lurzoruaren Legearen balorazioen Erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenari buruzkoa.

1.3.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATU ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE ETA HIRIGINTZA XEDAPENAK

- Hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko legea garatu eta aplikatzeko hirigintza kudeaketaren erregelamendua onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko hirigintza diziplinaren erregelamendua onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretua, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko plangintza erregelamendua onartzen duena.
- Martxoaren 5eko 635/1964 Dekretua, nahitaezko eraikuntzaren araudia eta orubeen udal erregistroa onartzen dituena.

1.3.3 INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketari eta energia trantsizioari buruzkoa.



- 6/2010 Legea, martxoaren 24koa, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina aldatzen duena.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- Euskadiko Natura Babesteko Legearen Testu Bategina (apirilaren 15eko 1/2014 Lege Dekretua).
- Arlo honetan aplikatzekoak diren Europako zuzentarauen multzoa.
- Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.
- 1998ko uztailaren 10eko Agindua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan 130 taxon eta Euskadiko flora baskularreko 6 populazio sartzen dituena.
- Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura:

- Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena.

1.3.4 KULTUR ONDAREA

- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dauden katalogoak.
- Ondare arkitektonikoa (Kultur Ondasun Kalifikatu eta Inbentariatuak) eta arkeologikoa (Eremu arkeologikoak eta ustezko arkeologikoak) ireki eta tratatzeko prozedurari buruzko foru dekretu eta aginduak.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.



1.3.5 URA

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urei buruzkoa.
- Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen I., IV., V., VI. eta VII. atariko tituluak garatzen dituena.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauriko mendebaldeko demarkazio hidrografikoetako plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.
- Martxoaren 12ko 435/2004 Errege Dekretua, Hezeguneen Inbentario Nazionala arautzen duena (hala badagokio).

1.3.6 LURZORUEN POLUZIOA

- Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak zabortegean utzita ezabatzea eta bete lanak egitea arautzen duena.

1.3.7 ERREHABILITAZIOA

- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- Ondare historikoa zaindu eta zaharberritzeko finantza neurriak garatu eta artikulatzen dituzten dekretu eta aginduak.

1.3.8 IRISGARRITASUNA

- Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

1.3.9 ZARATA

- Azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.



- Zarataren Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez hura garatzen duena, lehenengoa, eta zonifikazio akustikoa, kalitatearen helburuak eta emisio akustikoak, bigarrena.

1.3.10 BERDINTASUNA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa.
- 40/2012 Legea, abuztuaren 21ekoa, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituena.

1.3.11 AERONAUTIKA

- 297/2013 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Zortasun Aeronautikoari buruzkoa.
- 48/60 Legea, aireko nabigazioari buruzkoa, eta haren aldaketak.
- 21/2013 Legea, aireko segurtasunari buruzkoa, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako zehaztapenak.

1.3.12 TELEKOMUNIKAZIOAK

- 11/2022 Legea, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa.
- 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio zerbitzuetara sartzeko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
- Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako Araudia; ekainaren 10eko ITC/1644/2011 Agindua.

1.3.13 ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOA

- Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 2006ko martxoaren 17koa, eta geroko aldaketak.
- 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, EAEko bizigarritasun baldintza minimoak eta etxebizitza eta bizitoki dotazionalak diseinatzeko arauak arautzen dituena. (EHAA 168.1.09.2022 zk.).



1.3.14 LANDA INGURUNEA

- Abenduaren 13ko 45/2007 Legea, landa-ingurunearen garapen jasangarriari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoa.
- 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak arautzen dituen eta EAEko lurralde historiko eta eskualdeetako gutxieneko laborantza-unitateak zehazten dituen.
- 515/2009 DEKRETUA, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen.

1.3.15 ERREPIDEAK

- 1/2006 FORU ARAUA, ekainaren 6koa, Gipuzkoako errepideei buruzkoa.

1.3.16 SALTOKIAK

- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

1.3.17 BESTE BATZUK

- 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- ED 1372/1986, ekainaren 13koa, Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen Legea, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Osasunari, hezkuntzari, gizarte-ongizateari eta lurralde-administrazioen eskumenekoak diren beste arlo batzuei buruzko araudia eta legeria (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza).

1.3.18 LURRALDEA ANTOLATZEKO INDARREAN DAUDEN TRESNAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoak.



- 534/2009 DEKRETUA, irailaren 29koa, Beasain-Zumarraga (Goierri) Arlo Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra). Behin betiko onespena: 1998ko abenduaren 22a eta ondorengo aldaketak.
- Trenbide sarearen Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2001eko otsailaren 27a eta ondorengo aldaketak.
- Energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 2002ko maiatzaren 14a.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 2004ko uztailaren 27a.
- Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua publikoki sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2004ko abenduaren 21a.

1.3.19 BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK

Arau-mailarik gabeko erreferentzia-dokumentu batzuk, baina Plan Orokorrak bildu eta/edo kontuan hartu beharreko gaiak garatzen dituztenak.

- Udalerriko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana.
- Biodibertsitateari buruzko Europako estrategia 2030.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), 2002ko ekainaren 4koa.
- Natura 2000 Sarea eta Naturguneen Euskal Sarea.
- Euskal Baso Plana (1994-2030).
- EAEko Ingurumeneko Laugarren Esparru Programa 2020.
- Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea.
- EAEko Geodibertsitate Estrategia 2020.
- 2030eko Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050.
- Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia 2050.
- Landa Garapeneko Programa (2015- 2020), 2015eko maiatzaren 26an onartua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Polituen Plan Orokorra.



-
- Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrolögikoa, 2000/60/EE Europako Zuzentarauea garatuz sustatua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Fauna Intereseko Eremuen Katalogoa.
 - EAEn poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa eguneratzea, IHOBek egina.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra.

1.3.20 NAZIOARTEKO BESTE ZUZENTARAU BATZUK

- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994).
- Gizarte Garapenari buruzko Munduko Gailurra (1995).
- Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 (NBE 2015).
- 2016ko maiatzeko Munduko Goi-bilera Humanitarioa, Istanbulen.
- Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa (2015), COP22 (Marrakech) eta COP23 (Bonn).
- Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendaiko Markoa, 2015/2030erako.
- Hiri-agenda berria (Habitat III Konferentzia - Quito 2016), hiriak hurrengo 20 urteetan planifikatzeko.
- 2016 urteko Euskal Adierazpena, Europako hiri eta herrietarako ibilbide-orri berria, Iclei-Jasangarritasunaren aldeko hiri eta eskualdeen erakundeak sustatua, "Europa bizigarri eta integratzaile baterako udalerrri produktibo, jasangarri eta erresilienteak" sortzea definitzen duena.

1.4 DOKUMENTUAREN EDUKIA

Hiri Ordenamenduko Plan Orokorren Aurrerapena eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa jendaurrean jartzearen ondorioz jasotako iradokizunei buruzko txostena da orain idazten dena.

Txosten honetan, jasotako iradokizunen edukiak, balorazioak eta ondorioak jasoko dira.

Bestalde, txosten honek, jasotako iradokizunen eta Udalarekin izandako lan saioen ondorioz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren helburu orokorren berrikustea ere jasotzen du.



2 IRADOKIZUNEN EDUKI, BALORAZIO ETA ONDORIOAK

Ezarritako epean, luzapena barne, iradokizun idazki bakar bat aurkeztu da:

ZENBAKIA	DATA	AURKEZLEA
1	2024/08/30	ARANTXA BERISTAIN LASA

2.1 EDUKIA

Aurkeztutako iradokizun bakarraren edukia honakoa da:

“Gaintzako baserri batean jaiotze eta hazi del gazteren batek, herrian gelditzeko erabakia hartuko balu eta bere baserriko banaketa bai aktibitatearengatik edo familiako beste kideengatik osatuta geratzen bada, bere jaiotzeko lurzoru urbanizaezinean bizitoki bat egiteko eskubidea kontenplatzea. Etxebizitza horrekin lotuta baserri horretako lursail kopuru bat jartzea ere kontenplatu liteke, dagokion baso edo lurzoruak ondo mantentzeko konpromezuekin.”

2.2 BALORAZIOA

Lurzoru urbanizaezinean eraikitze eta jarduerak ezartzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean xedatutakoa betetzeaz gain, indarrean dagoen hirigintza-legedia ere bete beharko da.

Lurzoru urbanizaezinean bizitoki eraikin berri bat egin ahal izateko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa bete beharko da. Zehazki 31. artikulua araberak, etxebizitza modura erabiliko den eraikuntza-lizentzia, baratzezaintza eta abelazkuntzako ustiakuntza bati lotutakoa izango da eta eraikuntza hori ustiakuntza ekonomikoaren titularrak eta kudeatzaileak ohiko etxebizitza modura erabili behar duenean bakarrik emango da. Aurretiaz Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuari eskatu beharko zaio baimena eta hainbat baldintza bete beharko dira; ustiakuntzak gutxieneko eskakizunak bete beharko ditu, eskatzailea gutxienez eskaera egin baino urtebete lehenagotik gizarte-segurantzaren dagokion araubide berezian kidegata egon beharko da eta ustiatetik gutxieneko diru-sarrera baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak.



Edonola ere, aipatutako artikuluko 3. atalaren arabera, lurzoru urbanizaezinean bizitegi erabilerarako eraikuntza-obrak baimentzen dituzten lizentziek legezko baldintza bat bete behar dute: erabilera hori baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntza ekonomikoari edo landa-garapenaren berezko beste erabilera batzuei lotuta mantentzea, gutxienez 25 urteko epean, eta modu jarraitu eta etengabe.

Bestalde, 168/1997 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko lehenetsuneko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituenak, oraindik indarrean dagoen 7. artikuluan Gipuzkoarako Laborantza Gutxieneko Unitateak eduki behar duen gutxieneko azalera 1Ha dela xedatzen du.

Aurkeztutako idazkia eta indarrean dagoen araudia aztertuta, proposamenaren aldeko iritzia azaltzen da eta hasierako onarpenerako dokumentuan lurzoru urbanizaezinean bizitoki bat eraikitzeak aukerak erraztea planteatuko da, baina beti ere, arestian azaldutako araudia edo hauek ordeztzeko edo zuzentzeko onartutako beste araudi batek xedatutakoa bete beharko da.

2.3 ONDORIOAK

Iradokizuna onartzen da.



3 HELBURU OROKORREN BERRIKUSTEA

3.1 SARRERA

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauak 1999an onartu ziren; beraz, ez daude Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokituta.

Era berean, estatuko, sektoreko (Nekazaritza eta Basogintzako LPS) eta lurraldeko (LAG) legeria berria onartu da, eta EAEko Bizigarritasunari buruzko 80/2022 Dekretua argitaratu berria da.

Horrek guztiak araudi orokorra eta proposatutako eremu berri bakoitzaren araudi partikularra eguneratzeko betebeharrak ezartzen ditu, eta, gainera, eraikuntzari eta urbanizazioari buruzko ordenantzak eta katalogoa berrikusteko aukera ematen ditu (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Lege berrira egokitzeko).

3.2 HELBURU OROKORRAK

1. Gaintzako gazteak bere bizi proiektua herrian garatzea ahaldundzea.
2. Etxebizitza eta eraikin zaharren zaharberritzea sustatzea.
3. Baserrien biziraupena sustatzea.
4. Udalerriko natur baliabideak babestea.
5. Oinezkoentzako ibilbideak sustatzea.
6. Nekazaritzarako egokiak diren lurzorua babestea.
7. Lehenengo sektorea bultzatzea.
8. Zainketarako lanak dibertsifikatu eta babestea.
9. Auzoen arteko edo barruko komunikazioak hobetzea.
10. Udalerrian bertan lanpostuak sustatzea.
11. Udalaren ondare arkeologiko arkitektonikoa finkatzea, ondare horren kontserbazioa, babesa eta balioa ematea sustatuz.
12. Energiaren autosufizientziarako urratsak ematea.
13. Kanpoko gazteak Gaintzako herrira erakartzea.

3.3 INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK

Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko araudian berriki egin diren aldaketek (LAG, Jasangarritasun Energetikoaren Legea, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Ekologikoaren Legea...) eta gaur egun bizi dugun egoera klimatikoaren ondorioz estrategiak



onartzeak aukera emango digute irizpide, helburu eta neurri iraunkorrak bilduko dituen hirigintza-plan bat hausnartu, pentsatu eta idazteko.

- Lurzoru urbanizaezinean proposamenak egitea, ingurune fisikoan zehar egiten diren bide eta ibilbideen kontserbazioari eta balioari lotuak.
- Ingurune fisikoaren antolamenduan azpiegitura berde bat definitzea, gizarteari zerbitzu ugari hornituko dizkiona eta ingurumen- eta gizarte-fluxuak ahalbidetuko dituen hiri-esparru, landa-esparru eta natura-esparruen artean.
- Klima aldaketaren eraginekiko sentikorra den antolamendu proposamen jasagarria egitea.
- Paisaia udalerraren izaerarekin lotzea.

Gaintzak bere nortasun ezaugarriak gorde nahi ditu, hala nola, udalerraren landa-izaera eta paisaiaren kalitatea. Lehen sektoreak (basogintzakoak barne) funtsezko eginkizuna du, eta garrantzitsua izango da haren beharrak udalerrari osorako aukera gisa baloratzea.

- Lurraldearen funtsezko ahalmen gisa identifikatzea, babestea eta aintzat hartzea beren kokapenagatik edo beren harremanengatik paisaiaren aldetik interes edo zaugarritasun berezia duten eremuak.

Arreta berezia jarri beharko da paisaia aldetik interesa duten gunere berezietan.

- Basoen kudeaketa, korridore ekologikoen tratamendua eta ondare eraikiaren, elementu txikien eta interes naturalistikoko elementuen babesa eta balioa ematea.

3.4 HERRITARREN PARTAIDETZAREN HELBURUAK

- Udalerrian diren baserri huts kantitatea eta hauen egoera txarra ikusita, honi irtenbide bat ematea.
- Herrigunean (herriko plazan) autoen presentzia txikitzeke plazan autoak aparkatzea debekatu eta herri sarreretan autoen aparkalekuak egokitzea.
- Udaletxe Zaharra eta Apaiz Etxea eraikinak ekipamendu bezala ezartzea. Etorkizunera begira beharrezkotzat jotzen da, nahiz eta momentuz bi eraikin hauen erabilera ez den zehazten.
- Altzagaratera doan ibilbidea egokitzea.



Gaintza, 2024ko azaroa.

Fdo.: Josu Aranguren Etxeberria

Industria ingeniaria

Fdo.: Maider Romo Arizmendi

Arkitektoa